



eusfit mugiment

10 urrats nire ikastetxeak Eusfit Mugiment sisteman parte har dezan

1



Eusfit Mugiment ezagutu

Sasoi fisikoaren monitorizazio sistema da. Ikasleek 6 proba pasako dituzte urtero gorputz hezkuntzako irakasleak gidatuta. Bukaeran irakasle eta familiek ebaluazio txostenak jasoko dituzte. **Ikusi bideoa**.

2



Izena eman

Berritzegune Nagusiak ikastetxeetara bidalitako mezu baten bidez irekiko da izen-ematea.

3



Informazio bileretan parte hartu

Ikasturtean zehar gutxienez 2 bilera egingo dira. Bata sistema aurkezteko eta hasierako zalantzak argitzeko eta bigarrena emaitzak aztertzeako eta ebaluazio egiteko.

4



Materiala ikastetxean jasotzea

Probak garatzeko beharrezkoa den **materiala** ikastetxeetan jasoko da. Jarraitzeko konpromisoa badago, materiala ikastetxean geldituko da.

5



Sasoi fisikoak osasunarekin duen erlazioa ikasleekin landu

Ikasleei sistema aurkeztu, sasoi fisikoa eta osasunaren arteko lotura erakutsi, estigmatizazioa saihestu, antolatzeako ardurak banatu.

6



Gurasoen baimena jaso

Seme-alabak parte hartzeko eta datuak aplikaziora igotzeko **baimena** eskatzen zaie gurasoei.

7



Testak pasatzeko protokoloa ulertu

Probak egiteko eta erregistratzeko jarraibideak irakurri.

8



Probak egin

Urria eta maiatza bitartean **probak pasatu** ikasleei.

9



Emaitzak aplikazioan sartu

Ikasleei egindako proba guztien emaitzak **Eusfit Mugiment aplikazioan** sartu. Aplikazioan sartzeko irakasle bakoitzak **XLNETS** erabiltzailea beharko du (laguntza eskatzeko CAUra deitu 945 207 256).

10



Emaitzak aztertu

Ebaluazio txostenak aztertu eta ikasleekin komentatu. Ikasgaiaren programazioa eta saioetako edukiak planifikatzeko erabilgarriak izan daitezke.

Gurekin harremanetan jartzeko:
mugiment@mugiment.eus